



IRIZAR

kutxa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Landa Ingurumenaren
Garapenerako Departamentua



Laguntzaileak:

ORMAIZTEGIKO
UDALA



Euskal Herriko abere
autoktonoen elkarteak

Antolatzaileak:

ORMAIZTEGIN

JATORRIZKO
EUSKAL ANIMALI
ESPEZIEN
X. ERAKUSKETA



2009ko
urriaren 11an



ARRASTOAK
2009

EGITARRAUA

GOIZEAN

10:00ETAN

Euskal animalia espezien X. erakusketaren irekitze ofiziala.

10:00ETATIK **14:30**ETARA BITARTEAN

- Erakusketarako egokituriko gune berezietan jatorrizko euskal animalia espeziez osaturiko erakusketa zabalik izango da.
- Elkarte bakoitzak jatorrizko euskal animalia espezieetatik ekoizturiko produktuak salgai jarriko ditu.
- Talogileen partaidetza goizean zehar.
- Trikitilariak alaituriko giroa.

11:00ETATIK AURRERA

- Gune bakoitzean megafoniaren bitartez elkartekideek euskal animalia espezie bakoitzari buruzko argibide zuzenak azalduko dizkiete bertara hurbilduko diren ikusleei.

GITEBEL: GIPIZKOAKO TERREÑA ETA BETIZU ELKARTEA

• BETIZU TXIKIEN TXAPELKETA IKUSKIZUNA

- BETIZU, TERREÑA ETA PIRENAIKEN aurkezpena egingo dute.
- Arraza bakoitzeko azalpen historikoa, ibilbidea, hobekuntza genetiko eta arrazaren ezaugarriak emango dira. Azalpenetan animalien maneua, produkzioa eta irteera komertziala komentatuko dira. Animaliak hobeto ikusteko hiru loteetan jarriko dira. Honetaz aparte, erakuskizuna aberatsagoa izateko, animaliak ukuilu ezberdinetatik eramango dira. Behiak, bigaiak eta zezenak ikusiko dira.

HEBE: HERRI BEHI ELKARTEA

- PIRENAIKEN aurkezpena egingo dute.

GIASEL: GIPIZKOAKO ASTOZALEEN ELKARTEA

- GIASEL Gipuzkoako asto-zaleen elkarteko kideek ENKARTERRIETAKO ASTOAREN aurkezpena egingo dute.
- Elkarteko ASTOEI JARRITAKO OTARRETAN PASEATZEKO aukera izango da.

GISASI: GIPIZKOAKO SASI ARDI ETA AHUNTZ AZPI GORRIEN ELKARTEA

- Ahuntz eta sasi ardien SARIKETA IKUSKIZUNA egingo dute. Sariak talde onenari, ardi edo ahuntz onenari eta ahari edo aker onenari emango zaizkie.

GIMEBEL: GIPIZKOAKO EUSKAL HERRIKO MENDIKO ZALDIAREN ELKARTEA

- EUSKAL HERRIKO MENDIKO ZALDIA erakusgai jarri eta arrazaren inguruko adierazpenak emango ditu.

GIPIZKOAKO ERLAZAINEN ELKARTEA

• ESKUALDEKO XII. EZTI LEHIAKETA

- Erle kaxa eta panelak erakusgai jarrito dituzte.
- Eztia dastatzeko aukera izango da.

EUSKAL OILOZALEEN ELKARTEA

- Barietate desberdineko oiloak erakusgai jarriko ditu.
- OILOAREKIN prestaturiko SALDA eta PINTXOAK dastatzeko aukera izango da.

ELE: ARDI LATXA ELKARTEA

- Ele elkartekoek LATXA ARDIEN aurkezpena egingo dute.

EUSKAL TXERRIA

- EUSKAL TXERRIAREN aurkezpena egingo dute.
- Euskal TXERRIAREN txorixo pintxoak dastatzeko aukera izango da.

GIPIZKOAKO POTTOKAZALEEN ELKARTEA

• GIPIZKOAKO VI. POTTOKA TXAPELKETA

- Pottoken heziketa "DOMA NATURAL" teknikaz.
- POTTOKEN GAINEAN IBILTZEKO aukera izango da.

12:30ETATIK AURRERA

- Goizean zehar erakus gunean erreko den MUXALAREN PINTXOAK dastatzeko aukera izango da.